ANGELUKO IKASLEAK

OSOGUNEKO ERAKASKERA

1995 - 96

HOGOITALAUGARREN ERAKASPENA

(I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS-GAIA.

1- Zer da xixtuketan artzea?
2- Nun eta noiz artzenda xixtuketan?
3- Neguan goxo zena Oihanaldean? Zerbako?

(II)

**Oihanaldean**

Arrats hartan, orhoitzapen handi horiek hola gogorat ethorririk, pullitagoa, maiteagoa iduritu zitzaion Piarresi bere Oihanaldea. Xixtuketan[1] aitarekin, tresna-gider berri egiten edo xahar xuxentzen, aldateian arizan ondoan, sartu zen beraz sukaldean, eta berehala, halako bat igan zitzaion bihotzerat.

Bai, zinez, goxo zen Oihanaldeko sukaldean!

*Oi neguko arratsak, supazter xokoan,*
*Xixtuka ari dela haizea kanpoan,*
*Atheak hetsirikan, suaren ondoan,*
*Elgarri kontra oro sukalde beroan!*

*Elhurra zirurikan jausten da zerutik;*
*Urla, xorta-xorta, teilatu gainetik;*
*Arima herratuak intzirez kanpotik,*
*Berotzera jin nahiz leihoen artetik!...*

*Azantz[2] bakar bat ez da kanpoan ageri...*
*Xurtko ber bera da erausika ari...*
*Zorigaitz, arrats huntan mendian denari,*
*Tanpa, tanpa, bakarrik gauaz doanari!*

*Zer goxoa beraz, gaur, gure etxeñoan,*
*Kanpoan hotz bezenbat goxoño barnean!*
*Esne lodi kaikuan, xingar gerrenean,*
*Gaztenak pinp paderan, arno goporrean!*

Sukil eder bat erretzen emeki emeki ari zen; eta haren aintzinean kurturik, ama ikus ziteken, talo bat hurbil, bertze bat gibela, edo, oihal xuri marratuaren barnean, beren ttitta[3] eta printz beltxekin, talo hek garbi garbia eta bero beroa eman, oren hartan ari.

JOAN - Subjonctif Présent.

Ni noan : que j'aille
Hi hoan : que tu ailles
Zu zoatzin : que vous alliez
Hura doan : qu'il aille
Gu goazin : que nous allions
Zuek zoazten : que vous alliez
Hek doatzi : qu'ils aillent.

ORHOITMENETAKO

(III) ADITZ IKASKUNTZA.

31. Igan zitzaion 32. Nintzaizun. Gintzaizkizun
33. Ikus ziteken 34. Ikus nezaken.

31. IZAN. Regime Indirect. Imparfait.

Hura zen = il était.

Hura zitzaitan = il m'était
zitzaizun = il vous était
zitzaion = il lui était
zitzaigun = il nous était
zitzaizuen = il vous était
zitzaien = il leur était.

32. Ni nintzen = j'étais

Ni nintzaizun = je vous étais
nintzaion = je lui étais
nintzaizuen = je vous étais
nintzaien = je leur étais

Gu ginen = nous étions

Gu gintzaizkizun = nous vous étions
gintzaizkion = nous lui étions
gintzaizkizuen = nous vous étions
gintzaizkien = nous leur étions

JOAN = Indicatif Présent.

Ni noa = je vais
Hi hoa = tu vas
Zu zoatzi = vous allez
Hura doa :
Gu goatzi :
Zuek zoazte :
Hek doatzi : etc

ORHOITMENETAKO.